

2019 memoria



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO



Erakunde autonomaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Aurkibidea

1. Sarrera	3	4. Gatazkak konpontzea	21
2. Informazioa	5	4.1. Kontsumoko kontsultak Euskadin	21
2.1. Argitalpenak.....	5	4.2. Erreklamazioak, kexak eta salaketak Euskadin.....	23
2.1.1. Liburuxkak eta informazio-orriak	6	4.2.1. Kontsumobide	26
2.1.2. Aldizkariak.....	8	4.2.2. Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-Bulegoak (KIUB)	29
2.1.3. Azterlanak.....	10	4.2.3. Kontsumitzaileen elkarteak.....	31
2.1.4. Kontsumobideren 2018ko memoria	10	4.3. Zehapen-espedienteak	33
2.1.5. Kontsumotegia	10	4.4. Kontsumoko arbitrajea	35
2.1.6. Bideoak	11	4.4.1. Enpresen atxikipena arbitrajeari	35
2.2. Sentsibilizazioa	12	4.4.2. Arbitraje-eskaerak	37
2.2.1. Hedatzeko kanpaina	12	5. Merkatuaren kontrola	39
2.2.2. Kontsumobideren agerpenak komunikabideetan.....	12	5.1. Ikuskatzeko eta kontrolatzeko kanpainak	39
2.2.3. Ate irekien jardunaldiak.....	12	5.2. SOIVREekin koordinatutako ikuskapen-jarduerak	40
2.2.4. Kontsumitzailearen Munduko Eguna.....	13	5.3. Elikagaiak ez diren produktuen segurtasunaren kontrola	40
2.2.5. Bestelako ekintzak	13	5.4. Ikuskatze-jarduerak	41
2.3. Kontsumobide Interneten	13	6. Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzat	43
2.3.1. Webgunea	13	6.1. Babes ekonomikoa emateko programa	43
2.3.2. Bloga	14	6.1.1. Toki-erakundeak (KIUB)	43
2.3.3. Sare sozialak	14	6.1.2. Kontsumitzaileen elkarteak	46
2.3.3.1. Facebook.....	15	6.2. Kontsumoko Aholku Batzordea	47
2.3.3.2. Twitter	15	6.3. Lankidetzat-hitzarmena Autocontrolarekin.....	48
2.3.3.3. Instagram	15	6.4. Kontsumo sariak	48
2.3.3.4. YouTube	15	6.3. Kontsumoko Ministerioa eta gainerako autonomia-erkidegoak.....	48
3. Prestakuntza	16	Eranskinak (harremanetarako datuak)	49
3.1. Kontsumorako prestakuntza Kontsumobideko zentroetan	16	I. Eranskina: Kontsumobide.....	49
3.2. Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan	18	II. Eranskina: Informaziorako eta arretarako zentroak	50
3.3. Kontsumorako prestakuntza adinekoentzat	19		
3.4. Kontsumo-arloko profesionalentzako prestakuntza	20		

1. Sarrera

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa **159/2011 Dekretuaren** bidez onartu zen 2011ko uztailaren 12an. Denbora horretan, institutuak beti izan du kontuan zer helbururako sortu zen: kontsumitzaileak eta erabiltzaileak **defendatzeko eta babesteko** Eusko Jaurlaritzaren politikak **zehaztea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea**.

Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikitako erakunde autonomoa da. 2020an amaituko da **2018-2020 Kontsumobideren Plan Estrategikoa**, 2019an berrikusi eta egokitu zena.

Gure webgunean, gu ezagutzeko eta, batez ere, kontsumitzaileen gaitasunak hobetzeko behar duzun informazioa aurkituko duzu:

- ▶ [Zuzendariaren ongietorria](#)
- ▶ [Helburuak eta funtzioak](#)
- ▶ [Egitura](#)
- ▶ [Plan estrategikoa](#)
- ▶ [Memoriak](#)
- ▶ [Gardentasuna](#)
- ▶ [Bloga eta sare sozialak](#)
- ▶ [Non gauden](#)

Memoria hau, betebeharrak bat da Euskadiko herritarrentzat, oro har, eta gure erakundetik kanpoko kontsumoko profesionalentzat, bereziki. Ez da Kontsumobidek egindako jarduera guztiaren laburbilduma, baizik eta iragan ekitaldian egindako jarduera aipagarrien eta esanguratsuen laburpena.

Datuak **5 ataletan** banatu ditugu:

- ▶ Informazioa
- ▶ Prestakuntza
- ▶ Gatazkak konpontzea
- ▶ Merkatuaren kontrola
- ▶ Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzak

‘Informazioa’ eta ‘Prestakuntza’ ataletan Plangintza, Azterketa, Informazio eta Prestakuntzarako Unitatearen bidez gauzatutako jarduera adieraziko dugu batez ere. Informazioari eta prestakuntzari dagokionez, herritarrak beren **eskubide eta betebeharrei** buruz **kontzientziatu eta hezteko** ezinbesteko zereginak dira, modu kritiko, kontziente eta arduratsuan jardun dezaten produktu eta

zerbitzuak kontsumitzeko garaian. Ikastaroak, konferentziak, hezkuntza-jarduerak, komunikabideak, sare sozialak, web-orriak, bertako zein kanpoko argitalpenak... Gaur egungo kontsumitzaileak zein etorkizunekoak informatzeko eta hezteko eskura dituen bitarteko guztiak erabili ditu Kontsumobidek.

‘Gatazkak konpontzea’ kapituluan, Erreklamazioetarako, Bitartekaritzarako eta Arbitrajerako Unitatearen bidez egindako jarduerak biltzen dira. Kontsumoarekin zerikusia duten arazoei irtenbidea emateko kontsumitzaileek erabilitako baliabide guztiak hartzen ditu bere baitan: kontsultak, erreklamazioak, arbitraje-eskaerak...

‘Merkatuaren kontrola’, batik bat, Merkatuaren Ikuskaritza eta Kontrolerako Unitatearen bidez egiten da eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesteko Institutu honi dagozkion ikuskapen-lanei erantzuten die. Salgai dauden produktuek eta zerbitzuek indarreko legerian eskatutako baldintza guztiak (etiketei, informazioari eta segurtasunari dagokienez) betetzen dituztela egiaztatzeko lana betetzen du.

‘Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzatza’ atalean, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoei (KIUB) eta kontsumitzaileen elkarteei emandako laguntza ekonomikoei buruzko informazioa adierazi dugu, bai eta beste erakunde batzuekiko (Kontsumoko Kontsulta Batzordea, Kontsumoko Ministerioa, beste autonomia-erkidego batzuk...) harremanei buruzko informazioa ere.

Eta azkenik, bi **eranskinetan** biltzen dira Kontsumobideren harremanetarako datuak (I. eranskina), bai eta Euskadiko kontsumitzailearen informaziorako eta arretarako zentroen zerrenda ere (CIAC sarea -Kontsumobidek koordinatutakoa-): **KIUB eta kontsumitzaileen elkarteak** (II. eranskina).



2. Informazioa

2019. urtearen joanean, Kontsumobidek informazio arloan egin zituen jarduerak **ekimen hauen bidez gauzatu** ziren:

- ▶ Argitalpenak
- ▶ Sentsibilizazioa
- ▶ Kontsumobide Sarean

Azpirarratzekoa da Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuaren Legearen aurreproiektua. Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Batzordean, 2019ko azaroaren 18an.

2.1. Argitalpenak

Kontsumobideren helburu nagusietako bat da kontsumitzaileei eta erabiltzaileei informazioa ematea, eta, horretarako, **monografiak, liburuxkak, gidaliburuak eta kontsumo-gaiei buruzko material desberdinak** erabiltzen dira. Aurten **ikus-entzunezko formatuak** indartzeko ahalegina egin dela nabarmendu behar dugu, kontsumitzaileek informazioa errazago jaso dezaten, batez ere, bideoak sortuz.

Loturak:

- ▶ Liburuxkak eta informazio-orriak
- ▶ Gidak eta eskuliburuak
- ▶ Ikasmateriala
- ▶ Azterlanak
- ▶ Aldizkariak



2.1.1. Liburuxkak eta informazio-orriak

2019. urtean liburuxka eta informazio-orri hauek argitaratu eta zabaldu dira:



[10 trikimailu berokuntzan aurrezteko](#)



[Online erosketak](#)




[Ibilgailuak konpontzeko tailerrak](#)



[Txikinet segurua](#)



[Badakizu zer botatzen duzun zaborretara?](#)




[Kreditu azkarrak](#)



[Kontsumoari buruzko informazioa ostalaritza enpresentzat](#)



[“Revolving” txartelak edo kreditu atzeratukoak](#)



[Irakaskuntza arautu gabea](#)



Zerbitzuen Karta 2019-2020



www.kontsumobide.eus

Zerbitzuen Karta 2019-2020



Kontsumo arduratsua gabonetan

UTXIA	OTZALA	OTZALA	OTZALA	OTZALA	OTZALA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

2020ko egutegia

Horrez gain, kontsumoaren arloko **prestakuntzarako** hiru programei buruzko liburuxkak argitaratu eta zabaldu dira:



Kontsumoko prestakuntza Kontsumobideko zentroetan



Kontsumoko prestakuntza ikastetxeetan



Kontsumoko prestakuntza adinekoentzat

Gainera, **lau Infokontsumo** diseinatu dira. Formatu digitaleko dokumentuak dira, eta kontsumoarekin lotutako zenbait gairi buruzko informazioa barne hartzen dute esteka batzuen bitartez. Ikastetxeetako **gurasoei** zuzenduta daude.



Badakizu zer jaten duzun?



Aisia eta denbora librea



“Marka” ezazu alde



Elikagaien xahuketari ez

2.1.2. Aldizkariak

Kontsumobidek kontsumoarekin zerikusia duten gaiei buruzko aldizkariak egin eta argitaratzen jarraitu du. Argitalpenak Institutuaren [web orrian](#) daude eskuragai:

- **Kontsumobide Aldizkaria:** 2019an 3 ale argitaratu dira. Horietan guztietan kontsumoari buruzko artikuluak, gaurkotasun-albisteak, kontsultak, elkarrizketak... aurkitu ditzakezu.
- **34 zk.:** Argia eta gasa ethez etxe saltzea debekatu da
- **35 zk.:** Bidaia konbinatuak
- **36 zk.:** Zenbat janarik amaitzen du zaborretan?
- Lotura: [Kontsumobide Aldizkaria](#)



Aldizkari hau paperean banatzen zaie Euskadiko liburutegien sareko 290 liburutegiei. Era berean, formatu digitalean honako bidalketa hauek egin dira posta elektronikoz: 9.186 Eusko Jaurlaritzako langileei; 860 ikastetxetara; 272 mankomunitate eta udaletara; 39 KIUBetara; 19 Berritzegunetara; 23 kontsumitzaileen elkarteetara; 122 emakumeen elkarteetara eta landa-elkarteetara; 229 adinekoen elkarteetara; eta 115 beste elkarteei eta partikularrei.

► **Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan:**

2019an **14. zenbakia** argitaratu da, eta bertan 2018-2019 ikasturtean prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten ikastetxeek bidalitako artikuluak, argazkiak eta ekarpenak jasotzen dira. Programan parte hartu duten ikastetxeetan banatu da aldizkaria.



► Lotura: [‘Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan’ aldizkaria](#)

► **Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan:**

2019an **13. zenbakia** argitaratu da; bertan, prestakuntza-programan parte hartu duten EAEko adineko pertsonen zentroetan garatutako prestakuntza-programaren datuak jasotzen dira. Era berean, kontsumoarekin lotutako gaur egungo gaietan oinarritutako artikuluak agertzen dira.



► Lotura: [‘Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan’ aldizkaria](#)

2.1.3. Azterlanak

2019. urtean **galdeketa** bat egin da adineko pertsonentzako formakuntza programen erabiltzaileen artean:

- **“Adinekoen kontsumo-ohiturak”.**

Abenduan amaitu dira honako ikerketa hauek:

- **“Kontsumo kolaboratiboa: Zer dakigu horri buruz euskaldunok, nola darabilgu, zer tirabira sortzen zaizkigu, zer eskubide ditugu?”** (EHUrekin lankidetzan).
- **“EAEko bezero omnikanalen ohiturak”** (IKEIrekin lankidetzan).

Inkesta horietako emaitzak hurrengo txostenetan bildu ditugu.

- Lotura: [Azterlanak](#)

2.1.4. Kontsumobideren 2018ko memoria

2019. urtean argitaratu da [Kontsumobideren 2018ko memoria](#).




2.1.5. Kontsumotegia

2019an, Kontsumotegiaren **37 buletin** argitaratu dira guztira. Astero ateratzen den **informazio buletin** honetan, kontsumoaren arloarekin zerikusia duten **arau-aldaketen** eta **gaurkotasuneko** informazioaren berri ematen da. Harpidetza borondatezkoa da, eta hauei zuzenduta dago: Kontsumobideko langileei, kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoetako langileei (KIUB) eta Euskadiko kontsumitzaileen elkarten erroldan inskribatutako kontsumitzaileen elkarteetako langileei. Era berean, jasotzeko eskaera egiten duen edonorentzat ere eskuragarri dago.

2.1.6. Bideoak

Kontsumobidek, 2019an, [32 bideo](#) egin ditu, eta YouTube kanalean eta erabiltzen dituen sare sozialetan argitaratu ditu. Hauek dira horietako batzuk:



2.2. Sentsibilizazioa

2.2.1. Hedatzeko kanpaina

Kontsumobidek irratian egindako jarduera handia izan da 2019an. Mezu praktikoak zabaldu ditu, kontsumitzaileei beren eskubideen eta betebeharren berri emateko eta kontsumitzeko orduan gerta daitezkeen egoerei buruzko aholkuak emateko. Mezuak honako irratikate hauetan hedatu dira: Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Radio Vitoria, Euskadi Gaztea, Cadena SER Euskadi, 40 Principales, Onda Cero, Onda Vasca, Radio Nervión, COPE eta Cadena 100.

Bestalde, Radio Vitoria, Onda Vasca eta EITBrekin egindako akordioen bidez, 2019. urte osoan kontsumoan zentratutako espazioak edo mikroespazioak egin dira.

Webgunea, bloga eta sare sozialak modu koordinatuan erabili dira **aholkuak zabaltzeko** eta 'revolving' txartelei, garraioaren sektoreko greben aurrean erabiltzaileek dituzten eskubideei, online erosketei eta kontsumo arduratsuari buruzko ezagutza hobetzeko, besteak beste.

Elikagaien Xahuketaren Aurkako Euskal Plataformako partaide gisa, Kontsumobidek abenduan garatutako "Elikagaien Xahuketaren Aurkako Euskal Astea" parte hartu du, eta hainbat ekintza egin ditu. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da Bilboko Kontsumoko Prestakuntza Zentroan *monologista* batekin egindako saioa. Bakarrizketa hori grabatu eta sare sozialetan zabaldu zen.

2.2.2. Agerpenak komunikabideetan

2019an, Kontsumobidek guztira **9 prentsaurrekotan** parte hartu du eta **28 prentsa-ohar** egin ditu. Horrez gain, institutua **91 aldiz agertu da idatzizko prentsan, 178 aldiz prentsa digitalean, 13 aldiz telebistan eta 1.005, aldiz, irratian**. Komunikabideetan izandako presentzia hori gehitu behar zaie aurrez aipatutako komunikazio-kanpainei.

Kontsumobidek El Correo-ko **kontsumoari buruzko aholku-sailean** parte hartzen jarraitu du 2019an. Kontsumitzaileen 28 kontsulta argitaratu dira. Esan bezala, Institutuak Radio Vitoria eta Radio Euskadiko "Consumidores" saioko solasaldietan parte hartzen du, baita Onda Vasca kateko "Atsalde Pasa" saioan ere. Gainera, Radio Vitoriako eta Radio Euskadiko Kontsumitzaileak eta Onda Vasca irratiko Atsalde Pasa saioko solasaldietan parte hartzen du.

2.2.3. Ate irekien jardunaldiak prestakuntza-zentroetan

Ikasturtearen hasieran, ate irekien jardunaldia egiten da prestakuntza zentroetan. Helburua, horietan egiten den prestakuntza ezagutaraztea eta ikastaroaren berrikuntzak **erakustea** da.

2.2.4. Kontsumitzailearen Munduko Eguna

Martxoaren 15ean Kontsumitzailearen Munduko Eguna ospatzen da. Egun horretan, Kontsumoko Euskal Institutua kalera ateratzen da hiru lurralde historikoetan, herritarrei hurbiltzeko, bai Institutua bera, bai kontsumo-ekintzetan gizarte arduratsua sortzeko prestakuntza eta kontzientziazioa. Informazio-standak jarri ziren Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Horietan, liburuxkak eta dibulgazio-materiala banatu zen, eta bertaratutakoekin elkarriketa sortzeko modu bat izan da, kontsumitzaileen eskubideetan sakontzeko. Horrez gain, Bilboko Areatzako zubian, Kermesse moduludun azoka tradizional bat antolatu zen, non pertsonak kontsumo-erakundeak zuten probak gaituzten behar zituzten. Vitoria-Gasteizko Azoka Plazan, jarduera bat egin zen erosketari-erakundearen zozketaren bidez dinamizatuz.

2.2.5. Bestelako ekintzak

Maiatzaren 14an Kontsumobidek parte hartu zuen Tailer Agroekologiko honetan: "Unibertsitateko komunitatearen artean elikadura-ohitura jasagarriak zabaltzea". Stand bat jarri zuen Arabako campuseko Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen kanpoaldean, Magisteritzako eraikinean.

Gainera, Gabonetako eta Santo Tomas eguneko azoka dela eta, abenduaren 19an Gasteizen eta abenduaren 21ean Bilbon eta Donostian stand informatiboak jarri ziren. Bertan egutegiak, oihalezko poltsak eta liburuxkak banatu ziren.

2.3. Kontsumobide Interneten

2.3.1. www.kontsumobide.eus webgunea



Kontsumobideren webgunea

Guztira **130.241 erabiltzaile** sartu dira Kontsumobideren webgunean. Denen artean, **173.363 saio** hasi dituzte eta **339.680 orrialde** bisitatu. Datuek agerian uzten dutenez, saio guztien % 72a izan da Googleko bilaketaren bidez egin da. Ondoren dator zuzenean Kontsumobideren URLa teklatututa egindakoak (% 20) eta sare sozialen bidezkoak (% 3). Horien artean nagusi dira Facebook bidezkoak (sarreraren % 82). Azkenik, Kontsumoko Euskal Institutuaren atarirako estekak dituzten beste webgune batzuen bidez hasitako saioak daude (% 5).

2019an, sarreraren % 45 gailu mugikorren eta tableten bidez egin dira.

Hauek izan dira **gehien kontsultatutako edukiak**: erreklamazio bat nola aurkeztu eta kontsulta bat nola egin, erreklamazio-orriei buruzko alderdi esanguratsuenak, kontsumo-gatazkak ebazteko egin beharreko izapideak, Kontsumobideren bulegoen kokapena, produktuen bermeen gakoak eta kontsumo-arbitrajeari buruzko informazioa. 2019an webgunean argitaratutako **gai eta albiste** guztien artean harrera oso ona izan dute **gas-instalazioen ikuskapen eta azterketek**, baita **etxebizitzaren alokairuei** eta **merkataritza elektronikoari** buruzko informazioek ere.

Nabarmentzekoa da web orrian hitzezko epaiketetarako atal berri bat sortu dela. Eta atariaren auditoretza bat hasi dela irisgarritasuna, komunikazio-eraginkortasuna, erabilgarritasuna eta hedapena hobetzeko.

2.3.2. Bloga



Kontsumobideren Bloga

Kontsumoari buruzko bloga www.kontsumobide.eus webgunearen barruan dago. Blogaren helburua alderdi garrantzitsu batzuk modu atsegin eta erabilerrazean aurkeztea da. Herritarrak euren eskubide eta betebeharrak ezagutu ditzaten eta, horrela, era kritiko eta arduratsuan jardun ahal izateko kontsumo-egintzetan. Hortaz, erakunde honen webgunearen eta sare sozialetan duen presentziaren (Facebook, Twitter, Instagram edo YouTube) **osagarri izan nahi du**.

Sarrerak hamar arlo tematikotan banatuta daude: oinarritzko argibideak, prestakuntza, merkatuaren kontrola, erosketak, finantza eta aseguruak, produktuak, zerbitzuak, telefonia eta Internet, garraioa eta turismoa, eta etxebizitza eta hornidurak.

2019an, Kontsumobidek askotariko gaiei buruzko **28 sarrera** argitaratu ditu blogean, eta guztira **34.514 bisita** izan ditu. Hauek dira gehien irakurri diren *postak*: "Zenbat irauten du produktu baten bermeak? Nori eta nola erreklamatu behar zaio?", "Nola bereizi Europako CE eta Txinako CE markak?", "Trena berandu iritsi da: noiz eta zenbat erreklama dezakezu?" eta "Zer egin erreklamazio-orririk ematen ez badizute".

2.3.3. Sare sozialak

Kontsumoko Euskal Institutua sare sozialetan duen presentzia ondorengo **kanaletan** oinarritzen da: Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube.

2019an, 3.665,50 euroko sustapenak egin dira Facebooken, Twitterren eta Instagramen. Sustatutako edukiak gai hauei buruz izan dira batez ere: Halloween; kontsumoari buruzko prestakuntza ikastetxeetan; eskubideak Gabonetan; neguko beherapenak; eta jostailuak erosteko aholkuak.



2.3.3.1. Facebook



Kontsumobideren profilaren orriak **9.235 fan eta 9.293 jarraitzaile** lortu ditu. Urtean zehar **712 posts** argitaratu dira, eta sare sozial horretan presentzia optimizatu da, hartzaileengana hobeto iristeko eta haiekin elkarerraginean aritzeko, komunitatearen *engagement*-a areagotuz. Ildo horretan, 2019an guztira **1.528.522 eragin** lortu dira, eta horietatik 624.297 ordainpekoak izan dira. Herritarrekiko interakzioak 8.430 izan dira.



2.3.3.2. Twitter




2019an **2.500 jarraitzaile** lortu ditu, aurreko urtean baino **415** gehiago. Horretarako, **957 txio** argitaratu dira, eta horiek, **1.195.800 eragin** izan dituzte guztira; horietatik 721.623 ordainpekoak dira. Herritarrekiko interakzioak 2.600 izan dira.



2.3.3.3. Instagram



Kontsumobideren Instagrameko profilak bikoiztu egin du bere eragina 2019an. **488 jarraitzaile** lortu ditu, aurreko urtean baino **268** gehiago. Horretarako, **606 post** argitaratu dira, eta horiek **3.400 interakzio** lortu dituzte.



2.3.3.4. YouTube



Kontsumobidek Youtuben kanal bat du, **110 harpidedun** dituena. Nagusiki, kanala gainerako sare sozialentzako informazio-banku gisa erabiltzen du institutuak. 2019an **32 bideo berri** igo dira kanalera.



3. Prestakuntza

Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuak herritarrei zein kontsumoaren arloan lan egiten duten profesionalei zuzendutako doako prestakuntza- eta hezkuntza-programak antolatzen ditu.

Loturak:

- ▶ [Kontsumorako prestakuntza, lehentasuna Kontsumobiderentzat](#)
- ▶ [Prestakuntza-eskaintza](#)
- ▶ [Norentzat da prestakuntza-eskaintza?](#)

Kontsumobidek **hiru programa** ditu, batez ere: Prestakuntza **Kontsumobideko zentroetan**, Kontsumoko prestakuntza **ikastetxeetan** eta Kontsumoko prestakuntza **adinekoentzat**. 2019. urtean, guztira 3 programa horietan, **5.024 prestakuntza-jarduera** egin dira eta horiek **75.884 partaidetza** izan dituzte.

Kontsumoaren alorreko **profesionalei zuzendutako prestakuntzari** dagokionez, etengabeko prestakuntza-programa egiten da urtean zehar.

3.1. Prestakuntza Kontsumobideko zentroetan

Kontsumobidek hiru prestakuntza-zentro ditu **lurralde historiko bakoitzean bat**.

Loturak:

- ▶ [Kontsumobideren prestakuntza zentroak](#)
- ▶ [Prestakuntza-eskaintza: Prestakuntza kontsumobideko zentroetan](#)



2019an zehar **2.290 prestakuntza-tailer** eman dira Kontsumobideren prestakuntza zentroetan. Guztira, 177 erakundek hartu dute parte ekintza horietan.

Horrez gain, hezitzaileentzako 4 jardunaldi teoriko-praktiko egin dira, 31 prestakuntza-saio eman dira 23 erakunde publiko eta elkarteetan, "Kontsumobide zugandik gertu" kanpainaren barruan.

Kontsumobideren prestakuntza-zentroetan antolatu diren prestakuntza-jardueretan, guztira, **23.472 lagunek hartu dute parte**.

Honako hauek izan dira tailerrak garatzeko eskaera gehien izan duten arloak: **"Elikadura" eta "Jasangarritasuna"**.

Prestakuntza-jarduerak Kontsumobideko prestakuntza zentroetan (2019)

JARDUERA MOTA

JARDUERA KOPURUA

Tailer espezifikoak arloka

Publizitatea	157
Etiketak	113
Erosketa eta zerbitzuak	111
Iraunkortasuna	207
Eskubide eta betebeharrak	38
Segurtasuna	102
Teknologia berriak	143
Finantza-zerbitzuak	44
Elikadura	379

Tailer espezifikoak guztira **1.294**

Tailerrak (beste formatuak)

Hezkuntza-premia bereziei egokitutako tailerrak	149
Proiektu zehatzak	48
Prestakuntza paketeak	4
KB Txiki Txokoa	113
Focus Group	29
KB Lanbide Heziketa	53
Kontsumoari buruzko maratoiak	117
Kontsumobide Jolasean (Gabonak, Pazko astea, uda)	129
Kontsumo Abentura	271
Case Study	9
Ingeleseko tailerrak	64
Hitzaldiak	10

Beste formatuko tailerrak guztira **996**

TAILERRAK GUZTIRA 2.290

Gainontzeko prestakuntza-jarduerak

Jardunaldiak hezitzaileentzat	4
Erakunde-publikoetan prestakuntza	
‘Kontsumobide, zuregandik gertu’ kanpaina	31

Gainontzeko prestakuntza-jarduerak guztira **35**

**JARDUERAK PRESTAKUNTZA
ZENTROETAN GUZTIRA 2.325**

Kontsumobideko Prestakuntza-zentroak **eskatu daitezkeen ikasmaterialak** dituzte: materialak ingelesez (webgunean ere badaude), gelan lantzeko ikasmaterialak, elkartetentzako maleta, mediateka eta expomEDIATEKA materialak.

Guztira, 2019. urtean **11 material maileguan utzi dira**.

3.2. Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan

Lehen Hezkuntzako ikastetxeei eta **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloari** zuzenduta dago programa hau.

Ikastetxea osatzen duten 3 kolektiboari zuzendutako jarduerak dira: **ikasleak, gurasoak** eta **irakasleak**.

► Lotura: [Prestakuntza-eskaintza: Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan](#)



Ikastetxez ikastetxeko programa horren baitan, kontsumoari buruzko **2.577 tailer** egin dira: **2.502 tailer ikasleentzat** (2.266 Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta 236 DBHko lehen zikloan) eta **75 gurasoentzat**.

Tailer guztiak euskaraz zein gaztelaniaz ematen dira. Gainera, **ingelesezko 4 tailer** eskaini dira: 2 Lehen Hezkuntzan eta 2 Bigarren Hezkuntzan.

Tailer horiek EAEko **117 ikastetxetan** eman dira, eta, guztira, **49.842 ikaslek** zein haien irakaslek eta **868 gurasok hartu dute parte**.

Ikastetxeetan ikasleei emandako tailer kopurua (2019)

gai arloen eta ikasketa mailen arabera

GAIRLOAK	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA	GUZTIRA
Eskubideak eta betebeharrak	41	16	57
Elikadura	695	37	732
Kontsumo jasagarria	533	47	580
Aisia, jokoak eta jostailuak	421	28	449
Publizitatea	122	40	162
Segurtasuna	49	0	60
Erosketarako irizpideak eta etiketak	223	11	280
Teknologia berriak	182	57	182
GUZTIRA	2.266	236	2.502

Gurasoentzako 7 tailer praktiko eskaini dira:

- ▶ 'Elikadura ere bada hezkuntza'.
- ▶ 'Publizitatea: babesik onena hezte'.
- ▶ 'Bideojokoak, badakigu zertan jolasten dugun?'.
- ▶ 'Adingabeak eta Internet zerbitzua'.
- ▶ 'Adingabeak eta sakeleko telefonoak'.
- ▶ 'Jostailu egokia aukeratzea'.
- ▶ 'Etxeko ekonomia' (familiar).

Irakasleentzako kontsumoaren alorreko **orientazio pedagogikorako zerbitzua** eta ikasmaterial osagarri bidezko laguntza eskaini da, gelan lan egiteko.

Kontsumobidek, **gurasoei** programaren prestakuntza-saioetara bertaratzeko erraztasunak emateko asmoarekin, haurtzaindegia eta ludotekako zerbitzua eskaini die, 2 urtetik 10 urtera bitarteko seme-alabentzat. 32 saio egin dira guztira, 162 haurren parte-hartzearekin.

Consumópolis:

Consumópolis kontsumo arduratsuari buruzko eskola-lehiaketa bat da. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioko Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak antolatzen du Kontsumobideren eta beste autonomia-erkidego batzuetako kontsumo-erakundeekin elkarlanean.

- ▶ Lotura: [Consumópolis. Kontsumo arduratsuari buruzko eskola-lehiaketa](#)

Consumópolis lehiaketaren 14. edizioan (2018/2019 ikasturtean), **'Zure segurtasunagatik: ba al dakizu zer kontsumitzen duzun?'** izenekoan, 6 ikastetxeetako 210 ikaslek parte hartu dute.

3.3. Kontsumoko prestakuntza adinekoentzat


Nagusientzako prestakuntza funtsezkoa da Kontsumobideren plangintzan, bereziki kaltebera den kolektiboa baita.

Lotura: [Kontsumoko prestakuntza nagusientzat](#)



Programan **2.570 lagunek** hartu dute parte (**2.017 emakume eta 553 gizon**) **64 zentro, elkarte edo erakundeetan** banatuta. Guztira **122 tailer praktiko** garatu dira. Gehien eskatu den gaia “Ez zaitzatela engaina: iruzur eta maula ohikoenak”, “Elikadura eta nutrizioa” eta “Medikamentuak: erabilera arduratsua”.

Gaiak



- Ez zaitzatela engaina: iruzur eta maula ohikoenak
- Elikadura eta nutrizioa
- Medikamentuak: erabilera arduratsua
- Elektrizitatea eta gasa
- Etxeko aurrezpena
- Publizitatearen trikimailuak
- Saihestu arriskuak
- Bidaitu eskubide eta betebeharrekin
- Erosketa arduratsua
- Produktuen etiketak
- Kontsumoari buruzko argibideak
- Internet bidezko erosketak
- Banku-zerbitzuak
- Kosmetikoak
- Telefono zerbitzuak
- Merkataritza-establezimendutik kanpoko salmentak
- Bermeak eta LTZk

3.4. Kontsumo-arloko profesionalentzako prestakuntza

Kontsumobidek kontsumo-arloko profesionalen eta eragile ekonomikoen zuzenduriko **ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak programatzen eta antolatzen** ditu.

- Lotura: [Kontsumo-arloko profesionalentzako prestakuntza](#)

2019. urtean, kontsumoaren alorreko profesionalentzako **prestakuntza-ekintza** hauek antolatu dira:

- Jardunaldia: '**Kontsumoa udaletan: merkataritza elektronikoa eta banku zerbitzuak**' (Irun, otsailaren 7an).
- Jardunaldia: '**Hitzezko epaiketa (prozedura zibilaren legeko -PZL 437-447 artikuluak)**' (Gasteiz, ekainaren 10ean).
- Ikastaroa: **Kontsumo-alorreko arauak gaurkotzea** (Bilbo, urriaren 16 eta 17an).

4. Gatazkak konpontzea

Bitartekaritza eta arbitrajea dira kontsumo-gatazkak konpontzeko modurik onena, eta beraz, Kontsumobidek, urtez urte, bultzatzen eta indartzen duen helburu bat da. Jakina, kontsumitzaileen babes legal eta eraginkorra da jarduera guztien gidari. Helburu horiek lortzeko, Kontsumobidek informazio- eta izapide-jarduerak sustatzen ditu gatazkak konpontzeko.

4.1. Kontsumoko kontsultak Euskadin

2019an, kontsumoarekin lotutako **44.245 kontsultari erantzun zaie** Euskadi osoan. Horietatik **8.470 Kontsumobideri egin zaizkio** zuzenean, eta bide hauetatik jaso dira: aurrez aurre, telefono bidez eta online. Kontsumobidek online kanalaren aldeko apustua indartu du, herritarrei erraztasun handiagoak emateko. **KIUBetan 29.923** kontsulta argitu dituzte, eta **elkarteetan 5.852**.

- Lotura: [Kontsumo-arloko kontsultak, nola egin](#)



Kontsumoko kontsultak Euskadin (2019)

sektore eta erakundeen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	KONTSUMOBIDE	KIUB	ELKARTEAK	GUZTIRA	
Elikadura	26	69	8	103	%0,23
Ettxeko-tresna elektrikoak (ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak barne)	640	1230	98	1968	%4,45
Gasolina eta zerbitzuguneak	3	10	7	20	%0,05
Jostailuak	10	22	11	43	%0,10
Material elektrikoak	19	26	6	51	%0,12
Altzariak	177	512	65	754	%1,70
Produktu kimikoak (kosmetikoak, drogeria eta lurringarriak barne)	11	17	5	33	%0,07
Askotariko produktuak	184	331	49	564	%1,27
Ibilgailuen konponketa	610	1124	188	1922	%4,34
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	71	556	106	733	%1,66
Ettxeko-tresnen konponketa (ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak barne)	139	525	64	728	%1,65
Aseguruak	369	1911	469	2749	%6,21
Hornidura zerbitzuak (energia, ura...)	628	2236	261	3125	%7,06
Osasun eta laguntza zerbitzuak	116	514	69	699	%1,58
Banku-zerbitzuak	454	1697	1252	3403	%7,69
Askotariko zerbitzuak	827	6206	693	7726	%17,46
Telekomunikazioak - Telefonia zerbitzuak	2354	7104	759	10217	%23,09
Telefonia eta komunikazioa (gailuak)	6	135	14	155	%0,35
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	297	521	81	899	%2,03
Tindategiak eta garbitegiak	19	100	19	138	%0,31
Garraioak	463	1955	292	2710	%6,12
Ibilgailuak	210	510	51	771	%1,74
Bidaia	239	878	127	1244	%2,81
Etxebizitza, higiezinaren sustapena	598	1734	1158	3490	%7,89
GUZTIRA	8.470	29.923	5.852	44.245	%100

4.2. Kontsumoko erreklamazioak, kexak eta salaketak Euskadin

2019an, Euskadin **25.869 erreklamazio, kexa eta salaketa** izapidetu ziren kontsumo-bulegoen bidez, aurreko urtean baino % 7,21 gehiago: **12.084 Kontsumobideren** bidez; **12.211 Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoen (KIUB)** bitartez; eta **1.574 kontsumitzaile-elkarteen** bidez.

Kontsumo-erakunde desberdinek bideratutako erreklamazioak, kexak eta salaketak aztertu ondoren, agerian geratu da erreklamazio gehien jaso duten sektoreak berdinak direla:


- **Telekomunikazioak:** % 36,38
- **Etxeko tresnak** (informatika ekipak eta ikus-entzunezkoak barne): % 6,95
- **Hornidura zerbitzuak** (energia, ura, etab.): % 6,15

Hiru sektore horiek erreklamazio guztien ia erdia bildu dituzte: % 49,48.

- ▶ Lotura: [Kontsumoko erreklamazioak nola egin](#)
- ▶ Lotura: [Kontsumoko gatazkak konpontzeko izapideak](#)

Erreklamazioak, kexak eta salaketak Euskadin (2019)

erakundeen arabera



Erreklamazioak, kexak eta salaketak Euskadin (2019)

sektore eta erakundeen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	KONTSUMOBIDE		KIUB		ELKARTEAK	
Elikadura	92	%0,76	36	%0,29	3	%0,19
Ettxeko-tresna elektrikoak (ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak barne)	1.027	%8,50	745	%6,10	26	%1,65
Gasolina eta zerbitzuguneak	20	%0,17	6	%0,05	0	%0,00
Jostailuak	25	%0,21	11	%0,09	0	%0,00
Material elektrikoak	24	%0,20	16	%0,13	0	%0,00
Altzariak	304	%2,52	180	%1,47	21	%1,33
Produktu kimikoak (kosmetikoak, drogeria eta lurringarriak barne)	19	%0,16	13	%0,11	0	%0,00
Askotariko produktuak	205	%1,70	163	%1,33	12	%0,76
Ibilgailuen konponketa	644	%5,33	373	%3,05	32	%2,03
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	95	%0,79	135	%1,11	16	%1,02
Ettxeko-tresnen konponketa (ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak barne)	181	%1,50	200	%1,64	16	%1,02
Aseguruak	112	%0,93	522	%4,27	123	%7,81
Hornidura zerbitzuak (energia, ura...)	594	%4,92	924	%7,57	73	%4,64
Osasun eta laguntza zerbitzuak	207	%1,71	155	%1,27	14	%0,89
Banku-zerbitzuak	391	%3,24	577	%4,73	433	%27,51
Askotariko zerbitzuak	2.062	%17,06	1.544	%12,64	113	%7,18
Telekomunikazioak - Telefonia zerbitzuak	4.295	%35,54	4.725	%38,69	390	%24,78
Telefonia eta komunikazioa (gailuak)	133	%1,10	87	%0,71	4	%0,25
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	368	%3,05	221	%1,81	11	%0,70
Tindategiak eta garbitegiak	51	%0,42	33	%0,27	3	%0,19
Garraioak	581	%4,81	808	%6,62	144	%9,15
Ibilgailuak	153	%1,27	192	%1,57	14	%0,89
Bidaiak	355	%2,94	359	%2,94	39	%2,48
Etxebizitza, higiezinaren sustapena	146	%1,21	186	%1,52	87	%5,53
GUZTIRA	12.084	%100	12.211	%100	1.574	%100

Erreklamazioak, kexak eta salaketak Euskadin (2019)

sektore eta lurralde historikoen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
Elikadura	11	%0,26	79	%0,53	41	%0,60	131	%0,51
Etxeko-tresna elektrikoak (ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak barne)	326	%7,77	1226	%8,26	246	%3,60	1798	%6,95
Gasolina eta zerbitzuguneak	1	%0,02	23	%0,16	2	%0,03	26	%0,10
Jostailuak	7	%0,17	22	%0,15	7	%0,10	36	%0,14
Material elektrikoak	9	%0,21	20	%0,13	11	%0,16	40	%0,15
Altzariak	131	%3,12	282	%1,90	92	%1,35	505	%1,95
Produktu kimikoak (kosmetikoak, drogeria eta lurringarriak barne)	5	%0,12	21	%0,14	6	%0,09	32	%0,12
Askotariko produktuak	75	%1,79	226	%1,52	79	%1,15	380	%1,47
Ibilgailuen konponketa	211	%5,03	567	%3,82	271	%3,96	1049	%4,06
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	36	%0,86	141	%0,95	69	%1,01	246	%0,95
Etxeko-tresnen konponketa (ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak barne)	42	%1,00	243	%1,64	112	%1,64	397	%1,53
Aseguruak	113	%2,69	483	%3,26	161	%2,35	757	%2,93
Hornidura zerbitzuak (energia, ura...)	227	%5,41	871	%5,87	493	%7,21	1591	%6,15
Osasun eta laguntza zerbitzuak	29	%0,69	247	%1,67	100	%1,46	376	%1,45
Banku-zerbitzuak	254	%6,05	736	%4,96	411	%6,01	1401	%5,42
Askotariko zerbitzuak	573	%13,66	2189	%14,76	957	%13,99	3719	%14,38
Telekomunikazioak - Telefonia zerbitzuak	1638	%39,05	5064	%34,14	2708	%39,59	9410	%36,38
Telefonia eta komunikazioa (gailuak)	8	%0,19	112	%0,76	104	%1,52	224	%0,87
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	113	%2,69	375	%2,53	112	%1,64	600	%2,32
Tindategiak eta garbitegiak	15	%0,36	59	%0,40	13	%0,19	87	%0,34
Garraioak	178	%4,24	934	%6,30	421	%6,15	1533	%5,93
